

Intsumisioak 20 urte: LOTA, Lasarte-Oriako Talde Antimilitarista

Lasarte-Orian izan ziren intsumisio guztiak ez zituzten zenbait baina 200 bat izan zirela uste dute LOTA herriko talde antimilitaristako kideek. Duela 20 urte hasita hainbat ekintza, bilera eta mobilizazio "original" burutu zituzten, azkenean agintariek derri gorrezko soldadutza kentzea lortu zuten arte. /4-5



Ezker abertzalea *Iniciativa Internacionalistaren* alde

■ *Iniciativa Internacionalistaren* alde bozkatzeko ekitaldia antolatu du iganderako

Ekainaren 7an Europako Legebiltzarreko hauteskundeak ospatuko dira eta hika-mika judizial askoren ostean, ideologia politikoa ezberdinek bere botoa emateko ordezkaria izango dute.

Horregatik, Lasarte-Oriako ezker abertzaleak *Iniciativa Internacionalistaren* aldeko botoa eskatu nahi du eta horretarako, hainbat ekintza antolatu ditu aste honetarako.

Astearte arratsaldean, Okendon hasi eta herriko kaleetan zehar, *Iniciativa Internacionalistaren* kartelen pegada egin zuten ezker abertzaleko kideek.

Igandean, aldiz, 12:30ean da hitzordua Okendo plazan. Manifestazioa, barrikotea, sardina jana eta jaialdia ospatuko

dute alderdi politiko honen aldeko bozka bultzatzeko.

Iniciativa Internacionalista

Egungo krisia eta egoera politikoa eta soziala aldatu daitezkeelako, *Iniciativa Internacionalista* alderdiak puntu hauetan oinarritu nahi du bere programa, justizia soziala, askatasun demokratiko osoa, eskubide politikoak bultzatzea eta genero diskriminazioa zein kapitalaren Europaren aurka egitea.

Era berean, internazionalista izaki, mundu osoan dauden herrien askatasuna eta duintasunaren aldeko borroka sustatzen du alderdiak, Europako prozesu soberanistak edo Latinoamerikako justizia sozialean oinarritutako prozesuak. •



Ezker abertzaleko kideek, herriko kaleetan zehar, kartelen pegada egin zuten.

Europarako kanpaina egiten

Asteazkenean ere, Europako Legebiltzarreko hauteskundeekin zer ikusia duen ekimena izan genuen Lasarte-Orian. PSOEko ordezkarria den Eider Gardiazabal merkatuan herriarren artean arrosak banatzen egon zen eta, bide batez, alderdiak Europako parlamenturako duen programaren berri eman zuen. Zeregin honetan herriko alkateak, Ana Urchuegiak, eta zenbait zinegotzik, Jesus Mari Zaballós, Lurdes Acevedo edo Iñaki Mugikak lagundu zituzten. Eguraldia lagun, goizeko 11:00ak aldera, jende asko gerturatu zen politikoengana arrosak hartzera. •



GIZARTE/3
Lasarte-Oria
Bizirik-ek
inkestaren
irakurketa ona

KIROLA/6
Ostadarreko
Infantilen
ohorezko taldeak
kopa lortu zuen

KIROLA/6
Ostadarreko
II. erregionalak
finala du bihar

**Salesianos
Urnieta
Salesiarrak**

Lasartetik hamar
minutura autobusez

¡A 10 minutos de
Lasarte en autobús!

Gure helburua: Zure etorkizuna

Nuestro objetivo: tu futuro

IKASTETXEA EZAGUTZEKO
JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

maiatzak 30 de mayo sábado / larunbata (10:00 - 13:00)

Electrónica
Elektronika



Artes Gráficas
Grafikagintza



Zikloak



Impresión
Imprimaketa

Gipuzkoan
BAKARRA



Mecánica
Mekanika



Electricidad
Elektrizitatea

Ergoien, 6 - 20130 Urnieta - Tel. 943 551 789

www.salesianosurnieta.com

Neure kabuz



Aurkezpena

Kaixo guztioi,
Gaur hasten naiz txoko txiki honetan idazten eta, egia esan, hasi baino lehenago nire burua aurkeztu nahi dut, labor bada ere: Lasarte-Oriatarra betidanik, bertako eskolatan eta lekutan ibilia, mahai?tenis jokalaria garai batean, ekonomilaria eta ekonomia?irakaslea gaur egun, senarra, aita, eta ... gero gerokoak.

Azken hilabeteetako albiste ekonomikoak, dakizunez, ez dira bat ere onak izan. Horren lekuko da, adibidez, Lasarte?Oriako udalderetako 2009. urteko aurrekontua badiurdi ez dela aurkeztuko, aurreko urtekoa luzatuz, beraz. Garbi dago egungo egoerarekin bat datorren aurrekontua aurrekustea zaila dela (adituei beti entzun izan diet aurrekontuak ez betetzeko egin direla), baina, tira, arraroa iruditzen zait benetan alkateak (ia) gehien-go absolutua izanda. Beste adibide bat lehengo asteko graba orokorra da, gure inguruko sindikatuen gehiengoak deituta, ez oso egokia egungo egoera ikusirik.

Eta etorkizunari begira, zer? Albiste "ona" errentaren erorketa badiurdi mantsotzen ari dela da, baina ez dago bat ere argi oraindik zuloaren hondora zoritxarrez iritsi garen ala ez. Horrela, 2010eko aurreikuspenek esaten dute datorren urtea aurtengoa baino hobea izango dela, nahiz eta 2010 urte ona ez izan, errenta jaitsi eta langabezia igo egingo baita. Aurten San Pedro apostoluari inoiz baino "martxa" gehiago eskatuko beharko diogu festetarako. Bestela ... Beno, besterik ez. Nire lehengo saioa amaitu da eta hurrengo arte!! ... irakurleak (eta Txintxarrik) nahi batu bederen.

Ifield Erasukin

Zorion-agurrak



Enaut

Zorionak atzoko partez! Sei muxu potolo, anaia eta familiaren partetik.



Narora

Zorionak etxeko katarriari. 4 belarrezko muxu potolo Haizea, Andrea eta familia.



Izan

Zorionak familiaren partetik. Muxuak.



Santi

Zorionak eta muxu potolo bat zure familiaren partetik.



Oihana

Zorionak pittitti!! Txokolatetzko zortzi muxu goxo familiaren partetik.



Aitor

Zorionak zure lehenengo urteurrenean, gurasoen partetik. Asko maite zaitugu.



Nerea

Etxeko printzesak 3 urte ditu! Zorionak eta muxu handi 1, aitatxo, amatxo eta Gabitxuren partetik.



Esti

Zorionak waxipima! Ondo pasa zure egunen! 17 muxu handi! Maialen eta Garazi!



Ana

Zorionak guapisima! Muxu handi bat Adrian, Sheila eta Amairuren partetik.

Guardiak

Ostirala, 29

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Larunbata, 30

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 31

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 1

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 2

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 3

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 4

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako telefono zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako telefono zenbakia, 686 674 552.

• Logela bat alokatzen da pisu partekatuan Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez erretzailea bilatzen da. 250euro + gastuak.
Tel.: 686 932714.

Salerosketak

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aukia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean.
Tel.: 687 965454.

• Salgai josteko makina bat. Egoera onean. Tel.: 677 86 81 72

Lan-eskariak

• Emakume arduratsua eskaintzen da, garbiketarako, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Egun osorako eta erreferentziekin. Harremanetarako telefono zenbakia, 629 946 794.

• Pisia saltzen da Lasarte-Orian. Erdialdean, kanpora ematen duena eta berritua. 2 gela, sukaldea eta egongela ditu eta prezioa 260.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia, 626 505 689.

Oharra jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

• Hemengo emakume bat eskaintzen da ordu batzutan lana egiteko Lasarte-Orian edo inguruan.
Tel.: 943 364310.

• Emakume arduratsua bat eskaintzen da haurrak zaintzeko arratsaldean.
Tel.: 943 376447, 635 725141.

• Kazetari bat behar da lanaldi erdirako herri-aldizkari baterako. Interesatuak bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.info helbidera edo deitu 943 366858 telefonora.

• Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakumea naiz. Harremanetarako zenbakia, 616175328.

• Mutil bat mekaniko lanak, sukaldako laguntzaile edo baserriko lanak egiteko prest.
Tel.: 608098941

• Mutil bat kamarero lanak, helduak zaintzeko, baserriko lanak edo bestelako lanak egiteko eskaintzen da. Tel.: 659260707

• Adineko jendea zaindu eta garbitasuna egiteko lana egingo nuke. Etxe barnean biziz edo kanpotik. Tel.: 689159643

• Adin nagusiko jendea zaintzen edo garbitasuna egiten lan egingo nuke. Etxe barnean biziz edo orduka.
Tel.: 943368574-630438571
Marta

Jaiotzak

Jaione Cubreiro Rodrigues, maiatzaren 23an.
Oier Mendibe Capellan, maiatzaren 21 ean.
Lierni Riezu Ayala, maiatzaren 20an.
Luken Muñoz Sanchez, maiatzaren 18an.

Heriotzak

Margarita Gutierrez Alonso, maiatzaren 24an 87 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Lasarte-Oria Bizirik-en irakurketa baikorra

■ Herritarrek atez ateko bilketan parte hartzeko prest agertu direla azpimarratzen du

TXINTXARRI

Lasarte-Oria Bizirik taldeak Aztikerekin hondakinen kudeaketaren gainean burututako inkestan jasotako emaitzak aztertu eta baikortasunez ikusten dituela adierazi zuen lehengo ostiralean egindako prentsaurrekoan.

Era berean, txosten horretan agertzen diren hainbat datu nabarmendu nahi izan zituen.

"Herritarren %4,3a soilik erraustegi planta Zubietan jartzearen alde dago eta %81,5a berriz aurka. Honi buruz iritzia eman duten gehiengoak, %48,5a erraustetaren aurka da," azpimarratu zuten.

Gainera, "gehiengoak %94,4 administrazioak materia organikoaren bilketa sustatu beharko lukeela uste dute. Herritarren %83,1ak materia organikoa gainontzeko hondakinetatik bereizteko prest dago eta %3,8ak dagoeneko egiten du. Eta %61,5ak hondakinen bilketa atez atekoaren bitartez egitearen alde agertzen da."

Legeak eta Udal erabakiak

Honetaz gain, 2001 urteko urtarrilak 1an indarrean jarritzen legearen arabera, 5000



Lasarte-Oria Bizirik taldeak Hondakinen Euskal Legearen aldeko sinadura bilketa sustatzea eskatu zion Udalari.

biztanletik gorako udalerritan materia organikoaren bilketa derrigorrezkoa dela gogoratu zuten.

Baita 2008ko martxoan Lasarte-Oriako Udal Batzarrek gaikako bilketaren nagusitasuna onartu zuela ere eta ondorengoa adostu, "atez ateko sistema ezarri eta zabaltzearen aldeko jarrera adierazi eta esperientzia pilotu bat aurrera eramateko, etorkizuneko udalerriri osora zabaltzeko ideiarekin."

Eta Udal Hondakinen Frakzio Organikoaren gaikako bilketa ezartzeko derrigorrezkoari dagokionez, Eusko Legebiltzarrek ere lege bat onartzea eskatzen duela gogoratu zuten.

Sistema aldaketa

Hau dela eta, Lasarte-Oria Bizirik taldeak ondorengoa adierazi zuen, "bai Lasarte-Oriako biztanleen gehiengoak, baita udal-batzarrak ere, materia organikoa gaikako bil-

ketaren eta atez ateko sistema ezartzearen aldekoak gara."

Beraz, Lasarte-Oria Bizirik-ek ustez, udal-batzarrean onartutako esperientzia pilotuak ez luke balio behar aipatutako sistema ezartzeko edo ez, baizik eta udalerriri osora zabaltzeko garaian kontutan izateko.

Sistema honen eraginkortasuna munduko herri desberdinetan eta baita hondoko herrian ere, frogatuta dagoela azpimarratu zuten, "Usurbilen

atez atekoa martxan jarri duten lehen hilabeteen zabor-tegira hondakinen %23,92a besterik ez dute eraman, 2008an berriz, %71,57a eraman zuten. Egun, hondakinen %76,08a birziklatzen da."

Hau guztia dela eta, Lasarte-Oriako administrazioari esperientzia pilotuarekin lehen bait lehen hasi dadila eta udalerriri osoan sistema hau ezartzeko beharrezkoak diren bitartekoak bizkortu dituzan eskatu zuten erakundeak, horretarako ez baitu oztoporik ikusten.

Sinadura bilketa

Era berean, Lasarte-Oria Bizirik-ek Udalak Erraustetaren aurkako koordinadorak Hondakinen Euskal Legearen alde burutzen ari den sinadura bilketa sustatu beharko lukeela adierazi zuen.

Honetaz gain, ekimen honen alde sinatu ez dutenek Lasarte-Orian ondorengo lekuetan egin dezaketela jakin arazi zuten, Manoli estankoa, Goxogi gozodenda, Ekodenda Orbela, Corseteria Maya, LABeko egoitza edo ELAko egoitzan, baita taldeak larunetan goizean herriko kaleetan jartzen dituen mahaietan ere. •



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

EHUko praktiketako ikasleak Lasarte-Oriako udalean

Lasarte-Oriako Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanerako hitzarmen bat sinatu dute eta horren bidez ikasleek praktikak egin dituzte Gizarte Zerbitzuetako Kooperazio arloan.

Akordioa Ana Urchueguía alkateak eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko, Nazioarteko Harremanetako eta Zuzenbidearen Historiako saileko zuzendaria den Jose Luis de Castro lasarteoriata-

rrak sinatu zuten lehengo ostiralean.

Programaren helburu nagusia ikasleen heziketa indartu eta bereganatutako ezagutza teorikoak praktikan jarritzea da. Era honetara, ikasleek ezagutza eguneratua gehituko diote Udalak kooperazio arloan egiten duen lanari.

Hitzarmena 2008-09 ikasturtean zehar aplikatuko da eta adierazi beharrik gabe luzatuko da. •

Beltzak Rugby taldeko erakusketa Kultur etxean

25 urte dira Beltzak Rugby taldea sortu zenetik eta horen erakusle dira asteartetik aurrera Manuel Lekuona kultur etxean ikusi daitezkeen argazkiak.

Michelingo futbol zelaian, Hipodromoan edo hainbat herrialdeetan jokatutako partiden irudiak, inguruko taldeak, bidaiak eta famili argazki ugari, Jesus Erro, tal-

dearen sustatzailearen argazkia, taldearen kamiseta eta ikurra edo Egin aldizkariako Imanol Uribe Porruk idatzitako kronika bat.

Beltzak Rugby taldeko bizitzaren zatitxo bat erakusketan honetan ikusi daiteke, baita Lasarte-Oriako historia-rena ere. Horregatik, herritarrek gonbidatu nahi dituzte hau ezagutzera. •



Beltzak taldeko jokalariei ohiaik eta lagunak izan ziren lehenak erakusketa ikusten.

LANAK

Bide mozketak asfaltatze lanengatik

Loidi-Barren eremuko urbanizazio ekintzen baitan, asfaltatze lanak hasi zituzten atzo eta gaur ere horretan jarraituko dute. Honek aldizkako bide mozketak eragingo ditu Buruntza kalean Tajamarreko errotondaren ondoan, Adarra plazarako sarbidean Sasoetako errotondaren ondoan eta Beko kalen behin behineko aparkalekuaren ondoan. •

UDALEKUAK

Izena ematea gaur bukatzen da

Udaleko Zerbitzu Sozialen sailak Burgoseko Pradoluen- go herrixkan antolatutako udalekuegan izena emateko epea gaur bukatzen da.

Uztailaren 1etik 15era, 10 eta 14 urteko gaztetxoek gauza berriak ezagutu eta ongi pasatzeko aukera aparta dute. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 30

15:30ean, Ostadar-Lengokoak (Alebinen Txapelketaren fasea) Michelinen.

17:00etan, Ostadar-Getaria Keta (II. erregionala, finala) Usurbilen.

FUTBOL 7

Larunbata 30

19:15ean, Niasa-Corpa-AEG-Alfonso liburudenda (III. Maila) Matigoxotegin.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 30

MOSSO MEMORIALA

Michelin edo frontoian

15:00etan, Viña del Mar-Tragoxka

16:00etan, Morrison-Mayi

17:00etan, I.O.B. H.K.-Siglo XX

18:00etan, Obelix-Okela

19:00etan, Katanga-Oria Krist.

SQUASH

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Astlehena 01

KONTSOLAZIOA

Iñaki Garcia-J.R. Urruzola
Julen Vega-Iker Cañedo

Asteartea 02

TXAPELDUNEN FASEA

Agustin Erkizia-Aitor Reyes
Kinin Calvo-Alberto Udabe

Osteguna 04

TXAPELDUNEN FASEA

Kinin Calvo-Aitor Reyes
Alberto Udabe-Agustin Erkizia

PILOTA

Larunbata 30

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Intza 1-Zarautz (Udaberri txapelketa) Aritzabatalde kiroldegia, Zarautzen.

16:00etan, Oiarpe 5-Intza 2 (Udaberri txapelketa) Astigarragan.

16:00etan, Oiarpe 1-Intza 3 (Udaberri txapelketa) Igeldon.

TXAPELKETA HERRIKOIA

16:15ean, Lasarte-Asteasu (Gomazko paleta) Legazpin.

SANTA ANAKO PALA TXAPELKETA

Astlehena 01

18:30ean, P. Artetxe eta J.P. Artetxe-J.L. Yeregi eta J. Prieto

19:15ean, J. Pagola eta J. Ferriera-J. F. Solano eta M. Arroyo

20:00etan, A. Etxebeste eta I. Lizaso-A. Goikoetxea eta A. Azkonobieta

Asteartea 02

18:30ean, B. Esnaola eta X. Artega-J. Lizaso eta Txema

19:15ean, X. Garcia eta E. Urdanpilleta-X. Otaegi eta Potzu

20:00etan, I. Arluziaga eta I. Bardaji-A. Zubizarreta eta X. Eugi

Asteazkena 03

18:30ean, A. Iparragirre eta I. Iparragirre-Benito eta Joserra

19:15ean, C. Garcia eta B. Garcia-J. Begiristain eta M. Begiristain

20:00etan, E. Iradi eta I. Azkonobieta-M. Muñoz eta I. Muxika

Osteguna 04

18:30ean, A. Munduate eta J. Ariztizabal-P. Castro eta I. Castro

19:15ean, E. Jauregi eta F. Ariztimuño-A. Reyes eta R. Felipe

20:00etan, X. Etxezarreta eta M. Bardaji-B. Odriozola eta S. Martin

ATLETISMO

Larunbata 30

Goiz osoa, Olatz Flores eta Leire Amiano lasarteoriatarrek Euskadiko eskolarteko txapelketan Gipuzkoako taldearekin, Gasteizen.

Asteburu osoa, LOKEko Unai Imaz eta Irati Larrañagak Junior mailako Espainiako autonomia-erkidegoen txapelketan Euskadiko selekzioan, Avilesen.



IGERIKETA

Larunbata 30

Goiz osoan, XXXI. Liga Pro-bintzialeko 6. Jardunaldian parte hartuko dute Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazte txokoen, Kiroldegian.

Goiz osoan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek Manolo Garcia X. Sarian, Paco Yoldi Kiroldegian, Donostian.

JUDO

Larunbata 30

Asteburu osoa, Beñat eta Iñaki Elizalde Taldekako Ligako finalean parte hartuko dute, Madrilen.

Igandea 31

10:00etan, LOKEko judoka gazte txokoen Alebin eta Infantil mailako Gipuzkoako Sambo txapelketan, Donostian.

BOLA-JOKOA

Igandea 31

10:00etan, Ostadarreko bolo sailekoek Emakumea, beterrano, jubenil eta infantil mailako txapelketan parte hartuko dute, Hernanin.



Kopa eskuratu ostean, infantilek ederki ospatu zuten Joxe Belartietia eta entrenatzaileekin. Arg.: Maria Cortes

Ostadarreko infantilak garaile Gipuzkoako kopian

Igandean aukera zabala izan zen Michelingo futbol zelaian futbol ikusteko.

Lehenengo partidaren Aretxabaleta-Arizmendi eta Ostadarreko Ohorezko mailako infantilen norgehiagoka ikusi zen.

Bertan Ostadarreko infantilen taldeak merezimendu osoz Gipuzkoako Kopa irabazi zuen, Aretxabaleta-Arizmendi taldeari 3-0 irabazi ondoren.

Partida osoan nagusi

Unai Olaizola eta Xenki Astiazaranen taldeak joko bikaina

egin zuen eta partida hasieratik nagusi izan zen. Honela, bat eta hutseko emaitzarekin iritsi ziren atsedendira.

Bigarren zatian ere, nagusitasuna etxekoena izan zen. Ostadarreko mutilak oso trebeak egon ziren defentsa lanetan eta Artega atezaina ere bikain aritu zen.

Eneko Arruti kapitainak bigarren gola sartu zuen eta Egoitz Rodriguezek buruz sartutako gol batekin hiru eta hutseko emaitza lortu zuen. Era honetara, Ostadarrek garai-pena eta kopa eskuratu zituen.

Denboraldiko emaitza

Partida behin amaitu ondoren Gipuzkoako Federazioko Patxi Gabilondo ordezkariak Ostadarreko Joxean Belartietarekin batera etxeko taldeko kapitainari, Eneko Arrutiri kopa eman zituen.

Infantilen ohorezko taldeak denboraldi ona egin du eta kopa hau irabaziz, emaitza jaso du.

Igandean hasierako urduritasunak desagertu eta gero festa eta algara nagusitu zen Michelingo Kirol gunean eta herriko kaleetan. •

Ostadarreko II. erregionalak finala jokatuko du bihar

Ostadarreko erregionalako mutilak matematikoki mailaz igo dira eta bihar, larunbata maiatzaren 30ean, 17:00etan Usurbilen Getaria Keta taldearen aurka finala jokatuko dute. Hori dela eta, taldea entrenatzen duen Iñaki Zurutzarekin hitz egin dugu.

Denboraldian zehar eta jokatuko behar duten finalari begira taldea nola ikusten duen galdetu diogu, "taldeak lan handia egin du denboraldi osoan zehar eta horretaz gain emaitzak alde izan ditugu, lehengo urtean ere lana ederki egin zuten baina orduan emaitzak ez ziren aldekoak izan."

Aurten gainera erregionalakoak taldea sendotzeko fitxaketak egin dituzte eta lan sistema aldatu dute taldea ofentsiboagoa bihurtuz eta, ondorioz, taldea ausartagoa izan dela adierazi digu.

Hala ere, "orain garrantzitsuenak minduta dauden jokatukoak dira eta horretaz gainera, denboraldian zehar, taldearen errendimendua oso onak izan dira."



Erregionalakoek igoera lortu dute, orain txapelketaren txanda da. Arg.: Ostadar

lariak sendatzea da, horrela finalerako ahal den talderik osatuena edukitzeko," azpimarratu du Zurutzak.

Finalerako entrenamendu ordu batzuk geratzen zaizkie eta bere ustez indarrak nahiko parekatuta daude, "Ostadar

teknikoki hobeto dabil; fisikoki, ordea, Getariko taldea nagusitzen zaigu."

Beraz, biharko finala ez da samurra izango eta bi taldeek II. erregionalako txapelketan izateko gogor lehiatuko dira dudarik gabe. •

Egunero


Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa. Vanessa Gimenez egindako kamisetak oihalean pintura erabilia. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Erakusketa

25. URTEURRENA ospatzeko Lasarte-Oriako BELTZAK ERRUGBY TALDEAREN argazki erakusketa ikusgai egongo da ekainaren 5 arte. Kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.



Gizakiak aztertzeko dantza

ZOO, PIZTI TRAJEDUNAK, Erta taldearen lan berria, Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailek sustatutako Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan.

Zoo honek gizaki talde bat espazio murriztatuetan ikusteko aukera emango digu. Habitat berri honetan nola jokatzen duten ikusi ahal izango dugu

GAUR OSTIRALA 20:00ETAN
MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN
SARRERA, 6 EURO

Ostirala, 29

Kontzertua

Irungo KABIGORRI abesbatzako kontzertua eskainiko du, Danok Kide Guraso elkarteak antolatutako IV. Musika Topaketaren barruan. Brigitarren komentuan, 20:00etan. Doan.

Larunbata, 30

Antzerkia

HOLAKO KONTUK ETA... KOMERIK eta ETXE HAUETAN JAKINA DA antzezlanak Landaberriko Antzerki Eskolako VII. Antzerki Astearen barruan. Doan. Kulturetxean, 22:30ean. EUSKARAZ

Ostirala, 5

Bideoforuma

TODO SOBRE MI MADRE filmaren bideoforuma. Pilar Arrazola antropologoa izango da gonbidatua. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea
Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxerategi kontzentrazioa egingo du arratsaldeko 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei bertan parte hartu dezaten.

EHNarekin bozkatu
Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriari taldeak, ekainaren 7an burutuko diren europar hauteskundeetan EHNarekin bozkatzeko deialdia luzatu nahi die herritar guztiei.

Oztabide elkarte biler
Arranbide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten zaie, maiatzaren 30ean larunbata goizeko 11:00etan Oztabideko lokalean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean, bilera dagoela.

Korrika 16ko zozketako saridunak
Korrika 16-ko arropa erosteagatik jasotako txartelen zozketan honako zenbaki hauek atera dira: 98657, 94136 eta 80766. Saria, aurtengo korrikako arropa sorta bat da.

Bidea itxita
Udalak jakinarazi nahi du Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, uztaileara arte Illarraltzueta bidea itxita egongo dela, Larrekoetxetik Villa Maria Luisara arte.

Kurtso amaierako ekitaldia
Buruntzapzi Txirindularitza Eskolak kurtso amaierarako ekitaldi bat antolatu du. Ekitaldia Zubietako frontoian izango da larunbatean goizeko 10:30ean.

Igerilekua itxita
Igeri txapelketa dela eta Udal igerilekua datorren larunbatean maiatzaren 30ean, goizez 13:00ak arte, itxita egongo da erabiltzaileentzako.

Pista Estalia itxita
Udalaren Kirol Guneko kirolletako pistaren alboetako itxiturak egokitze obrak direla eta, instalakuntza hau itxita egongo da ekainaren 1ean hasi eta obrak amaitu bitartean. Barkatu eragozpenak.

Oharrak jartzeko:
Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Eskutitzak

Autobusen beharra

Lasarte-Oriako bizilagunen elkarteek gustura hartu dute orain dela gutxi martxan jarri den eta Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Zubiet eta Usurbil elkartzeko dituen autobus linea berria. Baina bide batez beraien ardura azaldu dute gai honen eskuduntza duten erakunde aurrean (Lasarte-Oriako Udala eta Gipuzkoako Aldundia), izan ere Lasarte-Oriako herritarrek behin eta berriz eskatu dute hiri barnerako autobus bat eta Lasarte-Oria eta ospitaleak elkartuko lituzkeen autobus linea. Ez dugu ulertzen bi proiektu hauek zergatik atzeratzen ari diren hainbeste, gainera benetan mugikortasun iraunkor baten aldeko apustua egiten bada errentagarritasun soziala eta ekonomikoa lor-

tzeko, dagoeneko martxan egon beharko lukete. Modu honetara alferrikako transbortak eta gehiegizko ibilbideak saihestuko lirarteke.

Egun Lasarte-Oriako bizilagunen batek Ospitaletara joan nahi badu bi garraiobide erabilgarri ditu: lehenengo batek Donostiaraino gerturatuko du eta bigarren batek Ospitaletara. Honek batetik erabiltzaileentzat gastu ekonomiko bat suposatzen du eta bestetik ingurumenarekiko kalte garrantzitsu bat, izan ere 7 kilometrotako ibilbide bat gutxi gora behera 15 kilometrotako bi ibilbidetan bihurtzen baita, honek dakarren energia eta denbora galtzearekin.

Azpitarratu nahi dugun beste alderdi bat hiri barnerako autobusa martxan jartzea da, honek herriko mugikortasuna arrazionalizatzeko luke neurri handi batean autoen joan etorriak gutxituz. Ondorioz CO2aren jaulkipe-

na gutxituko litzateke eta inguruko herritarrek erdiguenera erosketak, gestioak, medikuntza... jaisteko egindako eskaerari erantzuna emango lioke. Zerbitzu hau alkateak publikoki eta komunikabideen aurrean martxan jarriko duela hitz eman du, baina oraindik bere horretan dago. Zeren zain egon behar dugu zerbitzu hau martxan jartzeko?

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarte guztiak

Nik ere Iniziatiba internazionalista

Azkenaldian bi estatuen estratejiaren erdian kokatzen da, Euskal Herriaren askapen prozesuan lanean ari diren milaka eta milaka militanteen artean ezinezona eta ilusio

eza zabaltzea. Herri honek bere buruaren jabe izateko falta zaizkion bi pausoak emateko gai ez garena sinestari nahi digute, eta jakin badakite bi pauso horiek emateko beharrezkoa dela ezker abertzalea.

Kapitalaren krisialdian gauden honetan, langileak kalera ateraren diren honetan, bi bide geratzen dira, bata orain bezala jarraitu eta herria hiltzen uztea eta bestea Europa zaharrek garai berri hauetan lehen herri aske eta ezkertiar bat sortzea, beste eredu sozial eta politikoa izango duen herria eta gainerako europako herri guztiak eredu horretara bideratuko dituen herri kutsakorra.

Honela bada, badator, hemen da, herriak askatasunera daramatzen azken bultzada, Iniziatiba Internazionalista!

Beñat Iriondo

‘Niretzat oso esperientzia polita izan da’

■ Iñigo Peña musikagile lasarteoriatarren *Mariren labirintoa* musikalaren estreinaldia gaur

Gaur 20:00etan Victoria Eugenia Antzokian izango da estreinaldia eta igandera arte egongo da bertan. Donostialdeko musika eta dantza eskolek parte hartu dute muntaiari eta 300 bat pertsona egongo dira lanean guztia ongi atera dadin. *Mariren labirintoa* Iñigo Peña lasarteoriatarrek aurkezten duen lehenengo musikala da. Musika estiloen nahasketa, ahotsa, instrumentuak, argi efektuak, irudiak... eta, hau guztia, euskal mitologiako pertsonaia eta gaur egungo gazteak nahasten dituen istorioa azaltzeko. Hau guztiagatik, Iñigorekin egon gara proiektu honen berri gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGUIRRE

Nola sortu zen musikala egitearen ideia?

Duela lau urte, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak deialdia egin zuen, istorio bat bilatu eta gero musika jartzeko. Nik proiektua aurkeztu nuen, orkestra abesbatza jazz taldea edo komboa eta bakarlariekin, eta Euskal Herriko mitologiarekin zer ikusia zuen istorioa egin nuen.

Donostiako Musika eskolek proiektua aurrera eraman nahi zutela esan zuten eta ikasturtean zehar prestatu dute. Asteburu honetan estreinatuko dugu, Donostia 2016 Kulturaren hiriburu izendatzeko *Sormenaren mobilizazioa* zikloaren barruan.

Zer ikusi daiteke musikala honetan?

Nahiz eta ekitaldi batean egin, bi zati bereizi daitezke. Batetik lagunen arteko eztabaida eta gatazka, batek kondairetan sinesten du eta besteek ez diote kasurik egiten. Bigarren zatian, pertsonaia mitologikoen txanda da.

La guztia abestua da, badaude zati instrumentalak, dantza ere badago eta hainbat elkarrizketa. Irudiekin asko jokatzen da eta argiarekin.

Horretan eszenako zuzendariak Kike Santiagok lan ederra egin du. Eskertzekoa da guztiak egin duten ahalegina.

Istoria nondik sortu zen?

Duela zortzi bat urte edo obra instrumentala egin nuen, Suite Mitikoa, eta zati bakoitza pertsonai mitologiko bat zen eta horik abiatu nintzen. Zergatik ez dut egiten istorio bat horrekin lotua, naturaren zer ikusia duena eta horrela sortu zen ideia.

Gero istorioa hartu nuen abestien hizkiak egiteko eta gero musika jarri nien. Askotan musikatik hizkia ateratzen da, baina oraingoan alderantziz izan zen. Eta oskestrazioa eta moldaketak. Hasieratik bukaera guztia egin nuen.

Estilo desberdinak erabili dituzu, ezta?

Ez naiz etiketak jartzen dituen pertsona eta ez dut gustuko. Baina egia da, esate baterako, lamiak agertzen diren bakoitzean musikak aintzinako kutsua duela edo gazteena modernoagoa dela.

Gainera, pertsonaia bakoitza agertzen denean

bere doinua du, operetan bezala. Ez da opera, baina forma behintzat horrelakoa eman izan zaio, preludioak daude eta musika ere.

Haurtzako musikala da?

Nahiz eta lana antzeztzen eta musika jotzen dutenak haurrak eta gazteak izan, adin guztientzako dela esango nuke. Asmoa hori zen behintzat. Ipuina da, baina nire ustez zapi urte azpiko haurrek ez dute ongi ulertuko.

Eta, gainera, esaten dutenez, musikalki ez da oso erraza entzuteko. Jotzen duten ikasleek edo irakasleek esan didatenez, jazz giroa edo erritmo batzuk ez dira errazak ulertzen.

Aldaketak egin behar izan dituzu azken aldian?

Zati batzuk moztu behar izan ditut eszenako zuzendariak proposatuta eta istorioari ildo ulergarriagoa emateko.

Tonu aldaketak ere egin ditut, abeslariari eta abesbatzari hobeto egokitzeko. Ze egiten duzunean ez dakizu nork abestuko duen.

Eta nik uste dut polita geratu dela. Egin dizkidaten proposamenak hoberrak izan direla esan behar da eta polita geratu da.

Laguntzaile lanetan ibili zara azken urtean?

Zerbait argitzeko telefonoz deitzen zidaten eta duela hiru hilabetez, eszena lantzen eta ibili direla, abesbatzei laguntzen egon naiz pianoa jotzen.

Nik oso ondo pasa dut haiekin lanean. Bakarlariak benetan zoragarriak dira. Gehienak Easo abesbatzakoak. Bakarlarietako bat, gainera, lasarteoriatarra dugu,

Easo abesbatzako Sergio Garcia eta ez dakit zein egunetan abesten duen, izan ere, bakarlarien papera bikoiztu da eta egun batean batek egingo du eta hurren-

goan besteak.

Gainera, gazteak dira, baina oso profesionalak. Denok dakizkete kanta guztiak eta besteen ahotsak, etab. Eta kristoren lana egin dute. Niretzako oso esperientzia polita izan da.

Orkestrarekin gutxi egon naiz, baina oso musikari onak daudela esan behar da.

Eta ostiralean estreinaldia, ez al zaude urduri?

Niretzat okerrera pasa da. Nik erraza daukat, orain haien lana da. Ziur nago denei ez zaiela gustatuko. Baina kritika guztiak onartu behar dira, onak eta hain onak ez direnak. Txarrak niretzat ez daude, asmo onekoak eta laguntzeko badira ongi etorriak izango dira. Nik entseguak ikusi ditut eta zenbait gauza beste era batera egingo nituzke, baina dagoe-neko ezin dira aldatu. Oso animatua nago eta ea zer gertatzen den. •





Musikarona,
Karaokea giroaparta

Dune

Kafetegia Taberna





Kale Nagusia 7 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 243675